

ZAINZAILEA NAIZ ETA LAGUNTZA BEHAR DUT

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Herritar guztiak > Zaintzailea naiz

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

Zertan datza zerbitzu hau?

Zerbitzu honen bidez, mendekotasun-egoeran edo arriskuan dauden pertsonen familia zaintzaileei aukera ematen zaie etxean pertsonak zaintzeko trebetasunak eskuratzeko eta nork bere burua zaintzeko estrategiak ezagutzeko.

- Honako hauek ahalbidetzea du helburu:
- zaintzaileek eskainitako zainketen kalitatea,
- modu ez-profesionalean zaintzen duten pertsonen bizi-kalitatea,
- beste zaintzaile batzuen erantzukidetasuna,
- nork bere burua zaintzeko eta zaintzeko ezagutzak, jarrerak eta trebetasunak eskuratzeko.

Nork jaso dezake zerbitzu hori?

Mendekotasuna duten pertsonen familia zaintzaileak, zaintzaile nagusiak izan edo ez eta adin-mugarik gabe.

Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

Zaintzaile nagusiak **eskaera egiten den udalerrian egon behar du erroldatuta**. Autozainketarako laguntza, informazioa edo prestakuntza behar du, autozainketa-zereginak egiteko.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua.

Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

Zerbitzua ematea **udalen ardura** da.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zerbitzu honetan interesatuta bazaude edo gehiago jakin nahi baduzu, Gizarte Zerbitzuetan lan egiten duten pertsonekin hitz egin dezakezu. Nola funtzionatzen duen eta laguntza hori nola balia dezakezun azalduko dizute. Esaiguzu zure udalerrria eta harremanetarako lekuak eta datuak adieraziko dizkizugu.

Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

[Fitxa laburrera itzuli](#)